

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4296

774/2018 EBAZPENA, abuztuaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita M.^a Isabel Malmierca García andrea Barakaldo-Sestaoko ESIko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko.

Barakaldo-Sestaoko ESIko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 25eko 659/2018 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2018ko uztailaren 16ko EHAAn argitaratu (136. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita baldintza profesionalak adierazitako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, M.^a Isabel Malmierca García andrea deialdiko lanposturako ego-kia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.^a Isabel Malmierca García andrea Barakaldo-Sestao ESIko Erizaintzako zuzendaria izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2018ko abuztuaren 20tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.